



208. zenbakia

· EKAINA 2021 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Ultzama aldean aski ezaguna delako izenik eman nahi izan ez digun gizona, 1963ko traktorean. Eskerrik asko argazkia ateratzen uzteagatik!

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren 6ean bidalia



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra




AITONAREN HORTZAK

“ Aitonaren hortzak
sartu ditut ahoan,
masailezurra hanpatu,
jakin zer sentitzen den
norberarena ez den aireak
ordeak higitzen dituenean,
sumatu hitzak
hutsuneetatik pasatzen
haginen hobiak bultzatzen
lokietan mina sentitzeraino.
Saiatu bilobaren
izena ahoskatzen,
berdin dio osteko lantuak,
makulua dut xede.

Ordezko aho baten zaporea,
ugerra ere ukatu
zaion adina,
hortzik gabeko eskeleto batek
lukeen itxuraz galdezka,
ezin naiz hainbeste biluztu.
Begiak mihian hondoratzen
zaizkit bestela,
dena naiz musu eta ibi.

Lurralde bigun bat
ahoska nezake
besotik helduta,
kexu zama eta oroimen,
ospitaleko leihora gerturatu
hortzen zuria gorputz osora
barreiatua duen gizona,
neure ile ikatz
kobabegi
erbeste azal oliba honetan
makulu edo ezten.

Aitonaren hortzak
jarri ditut ahoan,
inoiz ezer gertatuz gero
jakin dezaten nor naizen. ”



Pixkanaka aurrera doa txertaketa kanpaina Nafarroan

Pandemia hasi zenetik, neurri desberdinak hartuz hura kontrolatzen saiatu gara. Neurri eztabaidatuenean artean dago inoiz ezagutu gabe geneukan mugikortasunerako mugarena (berrogeialdia) eta biltzeko askatasunarena. Aldi berean, egoera honetatik ateratzen lagunduko gaituen txertoa lortzeko lasterketa abiatu da.

Nafarroan abenduaren 27an eman ziren lehenengo txertoak, eta lehenetsunezko taldeen banaketak zehazten duenaren arabera, 332.842 dosi eman dira honezkero. Ilbeltzaren 18an, berriaz, bigarren dosiak ematen hasi ziren, eta maiatzaren 16rako 229.643 pertsonak jaso zituzten lehen dosia eta 103.199k bigarrena. Herriarren %16,41 txertatzera iritsi da guztira, beraz.

Ultzama aldean Gerendiaingo zahar-etxean jarri ziren lehendabiziko txertoak ilbeltzaren 15ean. Geroztik, Ultzama aldeko eremu zabalean mendekotasun egoeran dauden herriarrei etxeetan eman zaie txertoa eta Larraintzarko frontoian ere zortzi egun desberdinetan egin da txertaketa kanpaina. Udalen eta boluntarioen inplikazioa eta Osasun Etxearekin izan duten elkarlana ezin hobea izan da, eta benetan garrantzitsua egun horiek antolatu ahal izateko.

55 urtetik gorako herriarren gehiengoak gutxienez txertoaren dosi bat jaso dute honezkero, 1.200 bat pertsona dira guztira. Hemendik gutxira hasiko gara 50 eta 54 urte bitartekoekin. Eskualdeko arriskudun langileak ere txertatuta daude, hala nola, osasun-langileak, irakasleak, SAD Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko zainzaileak...

Osasunbidearen helburua uztailaren bukaerarako 18 urtetik gorako %70 txertatuta izatea da. Erabilgarri dagoen txerto kopuruaren arabera izanen da emaitza hori, dena den.

Hasiera batean, landa-eremuan Pfizer-ekin (Comirnaty) soilik txertatuko ditugu herriarrek. RNA mezularidun txertoa da hori, gure gorputzak koronabirusaren proteina bat 'sortzeko' informazioa daramana. Gure immunitate-sistemak proteina horren aurka erreakzionatzen du antigorputzak sortzeko. Astra Zeneka-rekin (Vaxzevria) ere txertaketak egin

“ **Uztailaren bukaerarako 18 urtetik gorako %70 txertatuak egotea espero da Nafarroan** ”

ditugu: koronabirusaren ADNaren tximinoen adenobirus ADN zati bati erantsitako txertoa da hori. Aurreko kasuan bezala funtzionatzen du antigorputzak sortzeko mekanismoak, baina albo-ondorio gehiago ditu, sukarra, dardarak edo ezinegona adibidez. Kasu oso gutxi batzuetan tronboak eragin ditu.

Azpimarratu nahi dugu bi txerto horietako batek ere ez daramala antiinflamatorio edo antibiotiko osagairik, beraz, sendagai eta elikagai horiei izan ditzakegun alergia ez dira txertoa jartzeko kontraindikazioak.

Nafarroan txertaketa kanpainarekin hasi ginenetik ondoko emaitzak ekidin direla kalkulatzen da:

 **Jauntsarasko Osasun Etxea**

	Dosi BATEKIN	Bi DOSIREKIN	GUZTIRA
Sintomadun kasuak	%44	%83	900 kasu
Ospitale-ratzeak	%78	%93	600 ospitaleratze
Heriotzak			200 heriotza



Txertaketa Ultzaman



Euskara eta eskola

Erabilera faltaren atzean, erraztasun falta

Urteak dira eskualdeko haur eta gaztetxoek arteko harremanetan gazteleraren erabilera zabalduak kezka sortzen duela. Gure eskualdeko bi eskoletako haurren eta gazteen hizkuntza-ohituren inguruan gehiago jakin nahi izan dugu, eta horretarako, Jauntsarasko (Basaburua) Oihanzabal eskolara eta Larraintzarko (Ultzama) ikastetxera hurbildu gara. Zeintzuk dira ikasleen hizkuntza-ohiturak, eta zergatik jotzen dute hainbeste gaztelerara?

Hizkuntza-ohituren inguruan galdetuta, bi eskoletan antzeko erantzuna eman digute zalantza handirik gabe. "Haien arteko interakzioetan, bereziki guk kontrolatzen ez ditugun eremuetan, gazteleraz aritzen dira gehienbat", dio Eneko Goikoetxea Larraintzarko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hizkuntza planeko batzordekideak. Kepa Mateorena Oihanzabalgo zuzendariak ere argi dio: "haien artean erdara erabiltzen dute, erabat".

Erantzun horien aurrean, nahitaez dator hurrengo galdera: zergatik gertatzen da hori? Zergatik harremanetan dira haur eta gazteak erdaraz, eta ez euskaraz? Horretan ere bat datoz Larraintzarko eta Jauntsarasko irakasleak: erabilera erabat lotua dago hizkuntzaren kalitatearekin eta gaitasunarekin. Alegia, haur eta gazteek orokorrean ez dute

euskara erabiltzeko erraztasunik, eta horregatik, naturalago egiten zaie haien artean gazteleraz egitea.

Etengabeko borroka

Horrela definitu dute irakasleek eskolan euskararen erabilera bultzatzearen gaia. "Uda ondoren beti izaten zen borroka bat haiekin, nabaritzen baita udan kanean-eta erdaraz aritzen direla, eta oso erdaldunduak bueltatzen ziren", dio Mateorenak. Koronabirusak eragindako konfinamenduaren ondoren ere oso agerikoa izan zen euskararen erabilera galera; izan ere, aurtengo ikasturtean bereziki zaila suertatzen ari zaiela diote Oihanzabalgoek. "Lehen behintzat lortzen genuen gelan eta pasilloetan kontrolatzea, baina geroz eta zailagoa da, klaseetan ere irakasle bat atera orduko erdaraz egitea ateratzen zaie", dio Mateorenak.

Gauza bera gertatzen zaie Larraintzarren ere, baina Mikel Goikoetxea DBHko hizkuntza planeko batzordekidearen arabera, Basaburuko eskolatik iristen diren haur batzuk badute haien artean euskaraz egiteko ohitura. "Lehen urteetan batzuk euskaraz egiten dute oraindik, haien artean ohitura hori dutelako, baina egia da gero laugarren mailara edo iristerakoan ez dela horrelakorik ikusten", dio.

Urteetako ibilbideari begiratuta, egoera okerrera

Eskola euskalduntzeko tresna baino, kasu askotan erdalduntzeko tresna bihurtu dela diote Oihanzabalgo irakasleek; hain zuzen, familia euskaldunetik datozen eta euskaraz egiteko gaitasuna duten ikasleak ere pixkanaka kutsatzen joaten direla eta gaitasun hori galtzen doazen heinean, erdarara pasatzen direla. Kontrakoa ere gertatzen da kasu gutxiren batean, dena dela. "Iaz izugarri euskaldunak diren familietatik zetozen ikasle pare bat zeuden gela bat izan genuen, ahozkotasan maila handikoak zirenak, eta dinamika eraman zuten haiek, besteak ere erakartzen zituzten zertxobait euskarara", dio Mateorenak.

Azken urteetako perspektibatik begiratuta, ordea, egoera okertzen ari dela diote, bai Larraintzarren



Oihanzabalgo ikasleak, goizean eskolara iritsi berritan ▲



eta baita Jauntsaratsen ere. "Nik 16 urte eginen ditut hemen lanean, eta perspektiba hartuta, sekulako aldea nabaritzen dut lehen urteetatik hona. Hona iritsi nintzenean askoz euskaldunagoak ziren, erabileraren aldetik ez zegoen arazorik", gogoratzen du Oihanzabalgo zuzendariak. Larraintzarko hizkuntza planeko batzordekideak denbora gutxi daramate eskola horretan, baina gainontzeko irakasleekin hizketan, galera hori ere asko nabaritu dela diote.

Euskaraz egiteko erraztasun faltaz gain, Oihanzabalgo Garazi Arizmendi zuzendaritza taldeko kideak beste faktore bat ere ikusten du gaztetxoek gaztelerara jotzeko duten ohituraren atzean: edukien kontsumoarena. "Gaur egun kontsumitzen duten eduki ia guztia erdaraz da: interneta, youtuberrak, tik-tok, musika...". Horrek ere badu eraginik, eta ez hizkuntza-ohituran soilik, erreferente kulturaletan ere bai. "Kulturalki ere, erreferente kultural euskaldunak ez dituzte kasik ezagutu ere egiten", gehitu du Mateorenak.

Panorama beltz honen aurrean, zer?

Ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzeko saiakerak badira bi ikastetxeetan ere, baina irakasleak kontziente dira haurrek eta gaztetxoek eskolan ematen duten denbora baino gehiago ematen dutela kalean, eta haien hizkuntza-ohituretan eragina izateko aukera mugatua dutela. "Eskolak bakarrik ezin dio aurre egin historia guzti honi", dio Mateorenak, eta gauza bera Larraintzarko Mikel Goikoetxeak: "Eskolak euskararen erabilera bultzatzeko aukera agian badu, baina argi dago guk bakarrik ezin dugula", dio.

Larraintzarko eskolan hizkuntza-plana iaz jarri zuten martxan ikastetxe guztia erantzut, baina batzordeko kideek onartzen dute, koronabirusaren pandemia tarteko, zailtasunak dituztela planteamendu guztia aurrera eramateko. Momentuz, iaz diagnostikoa egin zuten, aurten plangintza egitea dute asmo eta datorren urterako pixkanaka

plangintza inplementatzen joatea. Hizkuntza-plana gain, irakurketa-plana ere jarri zuten martxan iaz. Ikasleek irakurtzerakoan ulermen arazoak zituztela eta, horretan sakontzea dute asmo.

Oihanzabalen ere Euskara-batzordea egon da lanean eskolan, gurasoek bultzatuta, eta batzorde horren bidez euskara bultzatzeko hainbat ekimen jarri dira martxan. Eskualdeko euskara teknikariarekin elkarlanean ere ibili dira plan estrategiko bat sortzeko helburuz, baina, momentuz, pandemiarena eta beste hainbat arrazoi medio, nahiko airean gelditu dela diote zuzendaritza taldeko kideek. Euskaraldia eta antzeko ekimenak daudenean eskolan ere lanketa berezia egiten saiatzen dira, eta eragin positiboa izaten dutela sumatzen dute. Guztiak, baina, bai Larraintzarren eta baita Jauntsaratsen ere, ados daude gauza batean: lan asko dago egiteko haur eta gaztetxoek arteko hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilerari begira aurrerapausoak eman ahal izateko. Horretan jarraituko dute.



▲ Udaberriko oporren aurretik agurra dantzatu zuten Larraintzarko ikasleek

Datu batzuk

- 2020an Oihanzabal eskolan atsedenaldi garaian egindako hizkuntza-erabileraren neurketaren arabera, ikasleen elkarriketen %36,6 soilik ziren euskaraz, %63,4 gazteleraz ziren
- Larraintzarko eskolak egindako inkestaren arabera, familien %35ean bi gurasoak euskaldunak dira, eta %44ean, bietako bat behintzat euskalduna da.

Zaborra... altxorra!

Birziklapena hitza gauza anitzekin lotzen dugun arren, Emauseko Trapuketariekin ere lotzen dugu. Baina, zein dira Emausko Trapuketariak?

Giza erakunde laikoa da, **irabazi asmorik gabekoa** eta nazioarteko Emaus mugimendura atxikia. Mugimendu hori 1949an sortu zen Parisen eta Abade Pierre apaiza izan zen bultzatzaile nagusia. Bigarren Mundu Gerraren ondotik **txirotasun** handia zegoen Parisen eta Abade Pierrek bere etxeko ateak zabaldu zizkien pobrezian eta baztertuta bizi zirenei. Poliki-poliki etxe gehiago eraikitzen hasi ziren, eta haiek kudeatzeko baliorik gabeko gauzak biltzen, sailkatzen, moldatzen eta saltzen.

Paristik, Frantziako beste tokietara ere zabaldutako mugimendua, eta gero Asiarara, Ipar Ameriketara eta Europako beste tokietara hedatu zen. 1969an nazioarteko manifestua adostu zen eta 1971n **Nazioarteko** Emaus sortu zen. Manifestu horretan bere lan ildoak azaltzen dira: "Zaborra altxorra da; komunitatea denon artean sortu behar da bazterketarik gabe; ekonomiaren ardatza baliabide gutxiagorekin ongi bizi ahal izatea da; ingurumena errespetuz zaindu behar da; kide guztiei dagokie bestelako bizimodua sortzea edo eraikitzea...".

Euskal Herrian Emausen mugimendua lehendabizi Nafarroara ailegatu zen 1972an, Baztan-Bidasoa zonaldera. 1980an Gipuzkoako gazte talde batek lan ekimen bat antolatu zuen **altzari** eta arropa zaharrak biltzeko asmotan. 1986an Donostian salerosketa justuko estatuko lehendabiziko denda zabaldu zen. 80. hamarkadan Gipuzkoa osoan zehar indartu ziren eta 1990ean, Gipuzkoako Aldundiaren babesarekin, ikastetxe, bulego eta egoitza ofizialetan paper eta kartoiaren aukeratze bilketa abian paratu zen.

1998an Bizkaian finkatu ziren. 2000. urtean zehar Madrilera eta Asturiasera zabaldutako proiektua, baita Galiziara ere. Azkeneko urteotan, batez ere **hondakinen** prebentzioan dihardute lanean. Gaur egun, trapuketarien jarduerak lau arlotan banatzen dira: gizarte eta lan **bitartekotasunean**, **garapen** jasangarrirako hezkuntzan, sare eta lankidetzan, eta giza eta ekonomia solidarioen enpresetan. Horren arabera, Emausko Trapuketarien lanak bi adar nagusi ditu:

1. Gaikako bilketak: arropa, tresna handiak, beira, papera, kartoia, siloko plastikoa, olioak, pilak...
2. Hondakinen berreskuratzea: berrerabili, berreskuratu, birziklatu eta aukeratu.



Hiztegia

Irabazi-asmorik gabeko erakundea: Organización sin ánimo de lucro

Txirotasun: Pobreza

Nazioarteko: Internacional

Altzari: Mueble

Hondakin: Residuo

Bitartekotasun: Intermediación

Garapen: Desarrollo



Azalpena

BERreskuratu, BERrerabili, BIRziklatu hitzak aztertuko ditugu une batean. Zer dute hitz hauek hasieran? BER- (edo BIR- aldaera) aurrizkia. Zer da, beraz, aurrizki bat? Hitzaren aurrean jartzen duguna hitz berri bat sortuz. Ikus dezagun:

- Erabili + BER- = berrerabili (berriro erabili)
- Eskuratu + BER- = berreskuratu (berriro eskuratu)
- Sortu + BIR- = birsortu (berriro sortu)

Euskaraz oso erabilia den bertze aurrizki bat DES- (edo EZ- aldaera), hitz mordo batean aurkitzen ahal dugu. Honek kontrako esanahia ematen dio hitzari:

- Agertu + DES- = desagertu
- Oreka + DES- = desoreka
- Ezagun + EZ- = ezezagun

Ariketak

Aurrizkiak erabiliz, hitzak osatu adibidean bezala:

	DES/EZ	BER/BIR
Egin	desegin	berregin
Bideratu		
Populatu		
Antolatu		
Gaitu	EZ	



▲ Berriozarko Emausko Trapuketarien egoitzan bisitan



Gradu edo master amaierako lanetarako bekak atera ditu Ultzamako Udalak

Bailararekin eta bertako jendearekin zerikusia duten gradu eta master amaierako lanak finantzatzeko lau beka atera ditu Ultzamako Udalak. Urriaren 1era arte egin daiteke eskaera.

2.200 euro eskaini dizkio programari Udalak, eta beraz, beka bakoitza 550 eurokoa izanen da. 2021-2022 ikasturteko Gradu edo Master ofizialetako ikasleek izanen dute eskaerak egiteko aukera, eta besteak beste, ondoko alderdiak baloratuko dituztela adierazi dute: lanaren originaltasuna eta praktikotasuna, genero-ikuspegia txertatzea edo egileak Ultzaman erroldatuak egotea.

Informazio guztia Ultzamako Udalaren webgunean aurki dezakete interesa dutenek.



550 eurokoa izanen da beka bakoitza ▲

Larraintzarko igerilekua irekiko dute aurtengo udan

Udako igerileku-sasoira begira, langileen kontrataziorako oinarriak zehaztu ditu Ultzamako Udalak maiatzean. Iaz, koronabirusaren egoera zela eta, itxita egon zen igerilekua uda osoan, baina aurtengoan instalazioa irekitzeko apustua egin du Udalak.

Ekainaren 12tik abuztuaren 29ra egonen da irekita igerilekua, egunero, goizeko 11:30etatik

20:30era, momentuz, garbiketarako eta harrerarako pertsona bat, zerbitzu anitzetarako bi pertsona eta bi sorosleren kontratazio prozesua abiatu du Udalak. Maiatzaren 17ra arte izan zuten interesa dutenek lanpostu horietarako izena emateko aukera. Igerilekuko ordutegiei, tarifei, bonoei eta bestelakoei buruzko zehaztasun guztiak ultzama.eus webgunean zintzilikatu ditu Udalak..



Larraintzarko igerilekua ▲



Hurrengo ikasturteko aurrematrikula kanpaina abiatu du AEKk

2021-2022 ikasturtean euskara ikasi nahi dutenendako zabalik da honezkero AEKren aurrematrikula kanpaina. Hain zuzen, ekainaren 15a arte egonen da zabalik euskara-ikastaroetan izena emateko aukera. www.aek.eus webgunera edo AEKren edozein euskaltegitara joz egin daiteke aurrematrikula. Gurean, Ultzama-Larraungora jo beharko dute interesa dutenek: 688 736 1766 da haien telefonoa. Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako herritarrei eman dizkiete aurreko urteetan klaseak.

Gainera, azken urteotan bezalatsu, eskaintza berezia egiten du euskaltegiak aurrematrikula kanpainan; %5eko deskontua izanen dute izena orain ematen

duten ikasleek, eta ordainketa egiteko orduan ere malgutasun handiagoa izanen dute.



AEK euskaltegia Baztanen



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
sak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



iritzia



Garbiñe Ubeda

Berria

Frantsesak eta murgiltze eredu

2021eko maiatzak 27

Nire gisa familia ugari batean sortutako adiskide baten gurasoek bazuten maximo sasi-matematiko bat, bidea ematen zitzaion bakoitzean zotinak jota baleude bezala errepikatzen zutena, haien zuzentasun etikoaren seinale: «Guretzat, seme-alaba guztiak berdinak dira». Praktikara eramanda, gaurko ikuspegitik irrigarri samarrak egiten diren neurri-arauak ezartzen zizkieten neskak neskekin eta mutilak mutilekin pilatzen zituzten zazpi haurrideei. Txikiak zirela, esate baterako, daltondarrak balira bezala jantziz, batzuen eta besteen arteko alde bakarra oihal beretik jositako gonak eta prakak izanik; eta koxkorragotan, denak ala denak eskolaz kanpoko orduetan solfeoa herriko organistarekin ikastera behartuz, edota igandeetan, adinaren arabera ordainsari proportzionala emanaz, bizpahiru adibide jartzearren.

Guraso haiei zentzuzkoena, bidezkoena edo demokratikoena iruditzen, eta ez konturatzen, eta are gutxiago ametitzen, delako berdintasun sasi-matematikoak alimaleko ukazioa zuela oinarrian; haurride bakoitzaren grinak lausotzeko, ametsak kamusteko eta izaera propio berezitua zigortzeko makina besterik ez zela, eta denetan larriena izan litekeena, faboritismoa erakusteko beldurrez, hain zuzen ere faboritismoa ari zirela sustatzen: gurasoen moldera edo etxeko markara hobekien moldatuko zenarena.

Halakoxeak dira frantses jakobinoak. Gurasokeria merke eta atzerakoia ezin gainditurik, beren gisako klonaziora makurtzen ez den guztia punitzen dute legez eta indarrez, zuzentasun konstituzionalaren izenean. Baina galdera ez da zergatik egin duten, zergatik bidali duten utikan murgiltze eredu. Galdera da, zer egin genezakeen guk, hizkuntza urritu eta lotsarazian bizi nahi dugunok, lege babesik gabe, baliabiderik gabe, ia ezertarako zirrikitu ofizialik gabe.

Hiltzen utzi ala intsumitu eta borrokatu. Ez dago besterik.

Chucherías Herodes, Patxi Irurtzunen azkeneko eleberria

Tratado de Hortografía aurreko eleberriaren arrakastaren ondoren, -hainbat edizio egin izan dituzte eta Mexikon ere argitaratu dute-, Chucherías Herodes argitaratu du Ultzamako liburuzainak. Nahiz eta bi argitalpenak independenteak dira eta bestea irakurri gabe irakurri daitezkeen, liburu berri honetan Tratado de Hortografía-ko pertsonai bera izanzen dugu protagonista, Los Taponos punk taldeko abeslaria. Honetan, Los Taponos-eko abesti arrakastatsu bakarraren, Estamos contra las reglas abestiaren, Trap bertsioa grabatzen aurkituko dugu. Aldi berean kalean eskatzen aurkituko dugu Spidermanez jantzita, edota La Escalera telebistako lehiaketan parte hartzen.

Istoria horren bidez haibat eta hainbat gai dira Irurtzunek Chucherías Herodesen agertzen dituenak: lan prekaritatea, klase konzientzia, maitasuna eta heldu maitemintzeko beldurra edo garena eta izan nahi genuenaren arteko talka, besteak beste. Euskal Rock Erradikala dekoratu gisa bat da, eta 80ko hamarkadan 15 urte zutenen eta oraingo nerabeen aita-ama direnen belaunaldiaren erretrato bikaina da Chucherías Herodes. Serie honetako bigarren eleberrian gainera, berriz ere aurkituko dugu liburuzainaren estilo umoretsua.





Bost mendi martxa eta ultratrail-a antolatu ditu Haize Berriak plataformak

Nafarroan eraiki nahi diren hainbat parke eolikoek aurka egiteko eta energia burujabetza aldarrikatzeko jaio zen Haize Berriak plataforma. Eskualde desberdinetako jendeak osatzen du taldea, eta tartean Anotzibarko herritarrek ere badaude. Maiatzean eta ekainean zehar bost mendi martxa eta ultratrail bat antolatu dituzte eskualde desberdinetan. Lehenengoa, maiatzaren 9an egin zuten Anotzibar inguruan; hain zuzen, Aldaun eta Mendurro mendiak igo zituzten. Eguraldi kaskar xamarra egin bazieten ere, herritar ugari egin zuten bat ekimenarekin.

Maiatzaren 16an, 23an eta 30ean ere mendi martxa gehiago egin dituzte parke eolikoek kaltetuko lituzketen inguruko eskualdeetan, eta ekainean ere jarraituko dute ekimenekin: ekainaren 6an Esteribarren eginen dute martxa, eta ekainaren 26an eta 27an, berriaz, Ultra Korrika izanen da: 165km-ko mendi lasterketa izanen da, herri eta gailur ugari gurutzatuko dituenak. Mendi martxen eta ultratrailaren inguruko informazio guztia mendimartxaknafarroa.org webgunean aurkitu daiteke.



▲ Euria lagun izan zuten lehenengo martxan



Buruzgaingo Zelai Sarratea eta Mirari Iturralde, Nafarroako binakako pilota finalean

Infantil mailan jokatzen dute 13 eta 14 urteko Zelai Sarrateak eta Mirari Iturraldek. Buruzgain pilota taldeko bi kideek Nafarroako binakako finala jokatu zuten Labriten, maiatzaren 29an eta 18 eta 6 galdu ondoren, Nafarroako txapeldunordeak dira.

Harro-harro eman zigun abisua Aitor Paternain Buruzgaingo entrenatzaileak. Nafarroako infantileko binakako txapelketako finalerako sailkatu zirela Zelai Sarratea eta Mirari Iturralde. Eta nahiz eta alde handiaz galdu zuten, 18 eta 6, egin duten lanarekin oso pozik agertu da Paternain.

Hiru urte daramatzate pilotan 13 urteko Sarratea, Auzakoa, eta 14 urteko Iturralde, Beuntzako alaba. Txapelketan, ordea, lehenengo aldia izan da Zelai Sarratearendako eta bigarrena Mirari Iturralderendako. "Finalaurrekoetara iritsi eta orduan hasi ginen sinisten aukerak bagenituela, baina hasieran ez genuen espero finalera iristea", esan digu Zelai Sarrateak.

Bost bikote izan dira bi hilabetetan jokatu den Nafarroako binakako txapelketan, Ultzamatik Sarrateak eta Iturraldek osatzen dutenarekin batera beste bikote bat, Garoa Hernandezek eta Irati Gerendiainek osatzen dutena. Baina pilotari bat konfinatuta izan zen eta horregatik ezin izan zuten sailkapenerako partida jokatu.



▲ Beheko ilaran, ezkerretik hasita, bigarrena eta hirugarrena dira Mirari Iturralde eta Zelai Sarratea.

Sega txapelketako finala Etxalekun izanen da uztailaren 3an

Pasa den urtean sega txapelketarik ezin izan zen egin, eta aurten itzuliko da Basaburuko eta Imozko batzordeak baieztatu digunez. Uztailaren 3an izanen da, Etxalekun. Izan ere, Imotzen tokatzen zen pasa den urtean, Basaburuan egin baitzen duela bi, baina aurrekoan izurriteak bertan behera utzi zuen eta aurten, bai, sega ikusteko aukera izanen dugu.

Uztailaren 3koa ligaxkako hirugarren jardunaldia eta finala izanen da. Beraz, txapela nork eramanen duen jakinen dugu Etxalekun. Ale honen itxierarako ez dakigu oraindik zeintzuk diren sailkatutakoak.

Berri onak beraz, sega itzuli baita gurera, eta gauzak bere onera doazen seinalea. Bitartean jakin izan dugu, ordea, Basaburuko BTTa, ekainean egiten ohi dena, aurten ere ez dela antolatuko. Izurriteak eragindako ezjakintasunak ez du aukerarik eman denborarekin dena prestatzeko.



▲ 2019an Udaben izan zen Sega txapelketa

ZURE IDENTIFIKAZIO DIGITALA
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN
ERABILTZEKO

ONLINE IZAPIDEAK
ITXARONALDIRIK
ETA MUGITU
BEHARRIK GABE

SISTEMA SEGURUA
ETA BERMEDUNA

ERRAZA ETA DOAKOA

MUGIKOR ETA
TABLETEKIN
BATERAGARRIA

GAKO BAKARRAREKIN
MAKINA BAT ZERBITZUTAN
IDENTIFIKATZEKO AUKERA
EMATEN DIZU:

- ERRENTA ETA
BESTELAKO ZERGAK
- LAGUNTZAK ETA
DIRULAGUNTZAK
- ZIURTAGIRIAK ETA
ERREGISTROAK
- ENPLEGU PUBLIKOA
- UDAL IZAPIDEAK: TAO,
ERROLDA...
- GIZARTE SEGURANTZA:
LAN BIZITZA...
- TRAFIKOA: PUNTUAK,
ISUNAK...
- HEZKUNTZA: BEKAK,
TITULUAK...
- ETA ASKOZ GEHIAGO...

Eskuratu al duzu cl@ve?

Erregistratu Cl@ven, administrazio publikoetan egiten dituzun
online kudeaketetan identifikatzeko modu erraz eta seguruan

GINARRIZKO ERREGISTROA



ERREGISTRA ZAITEZ ZIURTAGIRI DIGITALIK
GABE clave.navarra.es helbidean
"Ez dut ziurtagiri elektronikorik" hautatuz.



ONLINE SARBIDEA administrazio publikoetan
GEHIEN ESKATZEN DIREN IZAPIDEETARA,
Errenta Aitorpena kasu.

ERREGISTRO AURRERATUA



Eskuratzeko, ZIURTAGIRI DIGITALA IZATEA
EDO HITZORDUA ESKATZEA BEHARREZKOA DA
(kontsultatu zein den hurbilen duzun bulegoa
clave.navarra.es helbidean).



Cl@veren oinarritzko erregistroko IZAPIDEETARAKO
SARBIDEA, baita AURRERATUAGOETARAKOA ere,
Gizarte Segurantzara edo Historia Klinikora
kasu.

NAN + PIN identifikazio sistemak, Errenta Aitorpena eta Nafarroako Gobernuaren beste online izapide
batzuk egiteko erabiltzen denak, oro har erabilgarri egoteari utziko dio irailaren 1ean.

Cl@ve sistema seguruagoa eta gailu berriekin zein beste administrazio
batzuekin bateragarriagoa da. Aldatu Cl@vera!



Habelarte,

baserritarren elkarte

Gizartean eragiteko tresna gisa jaio da Habelarte, Mendialdeko baserritarren elkarte

Hiru urteko lanaren ondoren, martxoaren 28an jaio zen Habelarte, Aralarko Done Mikel Santutegian egindako sortze-asanbladan. Bi helburu nagusi dituzte; batetik, lehen sektoreak eta baserritar txikiek dituzten oztopoei elkarrekin aurre egitea, eta bestetik, elikadura burujabetza eta iraunkortasuna helmuga, agroekologian oinarritutako praktikak eta eredu estentsiboa sustatzea. Momentuz, 19 bazkidek osatzen dute Habelarte. Gure eskualdean Atetz, Basaburua eta Imotz kokatzen dira Mendialdeko eskualde zabalean, eta hiru bailaretako bost ekoizle batu dira ekimenera.

Habelarteren jaiotza

Leitzako kontsumo taldean dago Habelarteren jatorria. Duela sei urte sortutako taldean zeuden hainbat baserritar biltzen hasi ziren antolatzeke beharra ikusten zutelako: "Subjektu bezala antolatzeke beharra ikusi genuen, gure gabeziak eta behar bereziak baditugulako eta horiek lantzeko tresna bat falta zitzaigulako. Aldi berean, eragileekin elkarlanean aritzeko antolatuak egotea garrantzitsua ikusten genuen", azaldu digu Gotzone Sestorain Leitzako ekoizle eta Habelarteko kideak.

Orduan hasi ziren elkartearen oinarriak adosten, Leitzan, baina laster konturatu ziren eskualde mailara zabaldu behar zuten lana zela, Sestorainek dioenez elikadura sistema oso bat landu behar zutelako eta herri bakar batean egiteak zentzurik ez zuelako. "Lehenbiziko zirriborroa guk idatzi genuen Leitzako taldean, eta behin hori finkatuta, zonalde mailara zabaltzen hasi ginen, duela bi urte. Urte betez aurkezpena egin genuen herriz herri eta bailaraz bailara", azaldu digu Sestorainek. "Bileretan zer eta zergatik nahi genuen azaldu, prozesua kontatu eta hasierako zirriborroa luzatzen genien".

lazitik hona elkartearen sortzen prozesuan azken pausoak eman dituzte. Interesa zuten baserritarrekin proposamena adostea izan da bukaerako lana, eta, horrela, martxoaren 28an, Aralarren egindako batzar eratzailean aurkeztu zuten adostutako dokumentu finala, eta nahi duten ekoizleei taldean sartzeko aukera zabaldu zieten.

Elkartearen bizkarrezurra, agroekologia

Aipatu bezala, Habelarte ez da baserritarren elkarte soil bat. Helburu nagusi zehatz bat du: eredu agroekologikoa eta estentsiboa zabaltzea. "Oso garbi genuen gure helburua ez zela edonor sartu zitekeen baserritarren elkarte zabal bat egitea, eredu jakin bat landuko zuen elkarte bat sortzea baizik. Gure konpromisoa elikadura burujabetza eta nekazaritza iraunkorra lantzea da, eta horretarako bidea agroekologia da".

Horretarako, konpromiso batzuk finkatu dituzte. Ondorengook, adibidez, abeltzaintzaren kasuan: "Azienda larratzea ezinbestekoa da, eguraldiak uzten duen bitartean. Horretaz gain, abereen elikaduraren %60ak bertakoa izan behar du, zonaldeko larretan egindakoa. Gainera, nekazariak edo abeltzainak konpromiso bat

izan behar du nitratoen erabilpena gutxitzen joateko eta antibiotikoak ahalik eta gutxien erabiltzeko. Animalien kasuan tokiko arrazak lehenesten dira...", dio Sestorainek.

Elkartean dauden gehienak ekologikoan ekoizten dute, bina ez guztiak. Helburua haien eredu zabaltzea den heinean, interesa azaltzen dutenei trantsizioa egiten lagundu nahi diete: "Adibidez, aipatu dudan nitratoen erabilera gutxitzeko formakuntza egingen da, lurra ongarritzeko beste sistema batzuk lantzeko".



Biharko eguna ereiten, Habelarteren leloa ▲



Sentsibilizazioa eta komertzializazioa

Elkartearendako oso garrantzitsua den beste puntu bat gizartearen sentsibilizazioa da. Gotzone Sestoriain: "Gizartea eta kontsumitzailea elikadura sano batekin eta balore batzuekin konprometitu nahi dugu. Gaur egun modanjartzen arida irakurtasuna eta jasagarritasuna, eta oso hitz politak dira, baina askotan oso modu arinean erabiltzen dira, edukiz hustuak, eta guk edukiz bete nahi ditugu".

Horretarako, beren produktuak ezberdindu nahi dituzte eta duten aparteko balorea azpimarratu: "Epe ertainean gure produktuak desberdintzeko marka edo antzeko zerbitzu sortu nahi dugu, kontsumitzaileak ikusten duenean berehala jakin dezan balore batzuei lotuta daudela produktu horiek: ingurumenaren zaintzarekin, animalien ongizatearekin, elikadura osasuntsuarekin eta irizpide sozialarekin ere bai".

Helburu horiei guztiei irizpide soziala ere gehitzen diote. Ekoizleen diru sarreraren %50 nekazaritzatik edo abeltzaintzatik eratorriak izatea nahi dute, zonaldean ahalik eta baserri gehien egoteko. Horretarako, komertzializazioa ere landu nahi da: "Formakuntza eskainiko da; komertzializatzeko orduan produktuaren arabera estrategia ezberdinak behar dira, eta bakoitzak bere kanalak eta bideak landu behar ditu".

▲ Aldatzeko azoka ibiltarian aurkeztu zen Habelarte elkarte, maiatzaren 23an



MEGHAN SAPP,
Oskotz (Imotz)

Behorrek eta barazkiak

"Zergatik batu naizen Habelartera? Alde batetik, ekoizleengatik, eredu agroekologikoa eskualdean zabaltzen laguntzeko. Bestetik, kontsumitzaileen sentsibilizazioa sustatzeko, jaten dituzten elikagaiek gure inguruan zer eragin duten ulertu dezaten; eta baita ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremanak estutzeko ere".



MIGUEL ANGEL OIARTZUN
Egillor (Atetz)

Ardiak

"Nire helburua salmenta zuzena sustatzea da. Etorkizunean bai esnea, baita axuriak eta, ahal badut, gaztak ere etxetik saltzea. Horren harira, azoketan parte hartzea ere garrantzitsua iruditzen zait. Izan ere, askotan, ez dugu jakiten saltzen duguna nora doan ere".



JOSE ANGEL AZPIROZ
Beuntza (Atetz)

Ardi latxak eta Burgete arrazako behorrek

"Elkartea elikadura burujabetzaren eta nekazaritza iraunkorraren alde dagoelako batez ere, elkartearen filosofiarengatik sartu nintzen. Halaber, gure animaliak eta landareak osasuntsuagoak egotea lehenesten dugulako".



JOSU OLLO
Goldaratz (Imotz)

Ardiak

"Interesgarria iruitzen zait horrelako elkarte bat sortu izana, abeltzain txikiak besbesten dituelako. Seguro gauza honak ekarriko dituela baina oraindik ezin jakin nola joanen den".



JOSEAN ITURRALDE
Goldaratz (Imotz)

Gazta eta arrautzak

"Gure produkzio ereduaren bermatzeko tresna izan da Habelarte. Bakoitza bere aldetik aritu beharrean, elkarte batek gorputz bat eman eta lan egiteko moduan ildo bat markatzen du. Gainera, ikusgarritasuna emanen digu, bai gure lanari eta baita produkzioari ere".







Unai Altuna Villanueva: “Landa eremuan bizitzera ohitzen zarenean ez duzu besterik nahi”

Suarbeko Unai Altuna Villanuevak darama Olagueko Bikote Motor tailerra, Laida Hualde Saint-Esteben bere neska-lagunarekin batera. Altunak 31 urte ditu eta Suarbeko Polloneko bordan bizi da. Han jaio eta bizi izan da beti. Iruñean urte luzez lan egin ondoren, Peio Zubilagak 40 urtez kudeatutako tailerra hartu zuen Olaguen (Anue). Ondoren, Luzaideko Hualde batu zitzaion. Bilatu gabe etorritako aukera horrekin oso pozik daude.

Nola hasi zinen tailerrean?

Badira ia hiru urte hemen ari naizela, abenduan beteko ditut. 18 urterekin hasi nintzen lanean mekanikari, hori ikasi bainuen. Iruñean lan egiten nuen eta gustura nenbilen, baina Peiok [Zubilagak] erretiroa hartuko zuelako utzi eginen zuela esan zidan lagun batek, eta berarekin hitz egiteko. Horrela hartu nuen, ia bilatu gabe. Aukera suertatu zitzaidan eta animatu egin nintzen.

Iruñetik hona hurbiltzeko asmoa bazenuen?

Egun guztia hemendik hara ibiltzeaz eta modu ez oso onean bazkaltzeaz nazkatuta nengoen. Orain etxean bazkaltzen dut egunero, eta hori sekulakoa da.

Bezero gehienak hemengoak al dira?

Ultzamakoak dira asko, Anuekoak ere bai, baina Iruñeko ezagun batzuk ere hona etortzen dira, eta baita

Baztango batzuk ere. Baina bai, gehiengo eskualdekoa da; oso pozik nago jendearen erantzunarekin. Niretzako sekulakoa da herri batean lan egitea, oso atsegina zait.

Zaila al da herri txiki batean zerbait martxan jartzea?

Niretzako errazagoa izan zen tailerra lehendik martxan zelako. Zerotik hasia zailagoa da, hori beharbada ez zitzaidan burutik pasa ere eginen, bezeroak bilatu behar baitituzu... baina martxan egonda, zegoenarekin jarraitzea izan zen.

Bestela zaila izan daiteke landa eremuan negozio bat hasia, ezta?

Bai. Hemen kontuan hartzekoa da ez dagoela tailerrik. Ultzaman bai, bi dira, baina Anuen bakarra da hau, eta jendeak eskertzen du etxe ondoan autoa konpondu ahal izatea.

Beti bizi izan zara Suarben?

Polloneko bordan jaio nintzen eta han bizi izan nahiz bizitzaren zatirik handiena, eta ez dut besterik nahi. Neska-lagunarekin hasi nintzenean Iruñera joan ginen bizitzera, eta urtebete eman genuen han. Baina ni, han lan eginda ere, egunero lanetik atera eta etxera etortzen nintzen. Azkenean, landa eremuan bizitzera ohitzen zarenean ez duzu besterik nahi. Neska ere herri batekoa da, Luzaidekoa.



Unai Altuna Olagueko tailerrean



Orburuak romesku saltsarekin eta lepape iberikoarekin

Paula Arnaizek eta Julen Kañamaresek jaso gaituzte Beuntzako Ostatuan, Atetzen. Orburuekin egindako errezeta goxo bat konpartitu dute gurekin, Nafarroako produktu goxoa herrialde katalanetan oso ezaguna den romesku saltsarekin nahastuz. Ikasteko prest?

OSAGIAK: (RAZIO BATERAKO)

- Orburuak
- Tomateak
- Baratxuri buru bat
- 15 hur gramo
- 15 gramo almendra zuritu
- Ogi txigortu xerra bat
- Gindilla bat
- Olia
- Gatza
- Ozpina
- Bi xerra lepape iberiko

▼ Goxo-goxoak zeuden orburuak romesku saltsarekin

• PAUSOAK:

1) Orburuak roder izeneko makinan prestatuko ditugu: hutsean ontziratuta eta 45 minutuz 90 gradutara, ontziratzeke poltsan olio txorrotada eta gatz pixka batekin. Roder makinarik ez badugu, kazola batean su oso baxuan, ordu pare batez sukaldatu litezke.

2) Saltsa egiteko, tomateak bandeja batean eta baratxuria besten jarriko ditugu eta labean sartu. Tomateak 15-20 minutuz egon behar dute, baratxuri buruak gutxiago.

3) Tomateak eta baratxuriak zurituko ditugu, saltsarako gainontzeko osagaiekin batu (hurrak, almendra, ogi xigortua, gindilla, olia, gatz eta ozpina) eta guztia irabiatu egingen dugu. Ozpin eta gatz gutxi jarri hasieran, gero gehituko diogu beharrezkoa bada.

4) Aurretik egositako orburuak erditik moztuko ditugu, eta zartagin batean oliba oliotan frijituko ditugu. Su nahiko suabea frijituko ditugu, alde bakoitzetik minutu bat edo minutu eta erdi, pixka bat doratu arte baina erretzera iritsi gabe.

5) Orburuak platerera atera eta romesku saltsa gehitu, gainetik eta inguruan jarri eta platera dekoratu.

6) Lepape iberikoaren bi xerra fin-fin moztu eta orburuei gainetik jarri. Orburuek botatzen duten beroarekin urtu egingen dira.

7) Guztia oliba olio eta gatz pixka bat bota gainetik.

8) On egin!



▲ Paula Arnaiz eta Julen Kañamares, prestatutako platerarekin



Gerra gure alderdian (V)

Basaburuan, Errepublikaren kontra frontean hil ziren soldaduak

Basaburua izan zen alderdi honetako udalerri eskuinetakoena, baina ez horrengatik karlistena. Karlismoa ahuldua zen ordurako eta Basaburuan oraindik gehiago. 1936ko hauteskundeetan honako emaitza hauek izan ziren.

Eskuineko blokea: Bost kandidatuk.....653na boto bakoitzak.

Nazionalistak: Kandidatu bakarra.....69 boto.

Ezkerrekoak: Bost kandidatuk7na boto bakoitzak

la mundu guztiak eskuinari eman zion botoa, eta parrasta batek nazionalistei, eta hauei Imotzen baino frankoz gutxiago, batez ere arioren ikusiz, Imotzen hauek 79 boto atera baitzituzten eta Basaburuan soilik 69 boto.

Ezkerrekoak, %1era ere ez ziren iritsi, alajaina!

▼ Pío Ochotorena Barberena



BOLUNTARIOAK

Goitiko kontu hori ikusirik, harrigarria da nola Basaburuan ez zen inor ere mugitu lehen egunetan. Esan duguna, karlismoa bukatuxe zen hemen.

Lehen boluntarioak, uztailaren hondar aldera apuntatu ziren: Erreketeetan hiru lagun soilik apuntatu ziren hasieran: Fermin Muguerza Urriza, Juan Auza Oyarzun eta Isidro Beunza Ostiz, Beramendiko **Mitxelene**ko apez estudiantea, Itsasoko **Xukalde**koa eta Gartzarongo **Joandartzen**ekoa. Horrelakorik!

Igoa, Aizarotz eta Arrarastik, berriz, norbaitek erdietsi zuen boluntario andana bat, baina erdi engainatuak edo joan omen ziren udaletxera, eta bertan galdetu ea boluntario zetozen, eta ezetz, haiek ez zirela boluntario apuntatu, eta berriz atzera, etxera. Horietako hiruren izenak behintzat badakizkigu: Arrarasko **Joantorne**ko Miguel Alberro Oderiz, Igoako **Bengoetxe**ko Victoriano Elizalde Lizaso eta Aizarozko **Ezkizaburu**ko Dimas Segura Arrechea (1)

Ez, Basaburuan ez zen Lantzen edo Odietan sumatu zen berotasunaren arrastorik ere! Imotzen ez zela berotasun handirik esan genuen aurreko artikuluan. Imotzen berotasun handirik ez, eta Basaburuan hotza. Imotzen boluntario gutxi zela? Basaburuan bai gutxi zirela! Hainbeste soldadu joan, 214 bat eta boluntario 26 soilik izan ziren. Bai, eskuinari ematen zioten botoa, baina gerrara joan? Ezta pentsatu ere!

BESTE DATU BATZUK

Basaburuan hiru soldadu hil ziren 1937ko abenduaren 18an, Teruelgo fronte ikaragarrian. Beren gorputzak ez zituzten opatu. Ikus beheitiko taulan.

Lehen hil zen soldadua J. Vildarraz izan zen abuztuaren 20an gerra hasi eta hilabete batera. Gerra hasi aurreko urtean joan zen soldadu, 1935eko azaroaren 15ean. Regulares Larache batailoian zerbitzatu zuen eta Madrilgo frontean hil zen.

Eta azken hil zen soldadua, Juan Auza 1939ko ilbeltzaren 21ean Kataluniako frontean, Tremp-eko ospitalean. Gerra azken putzetan eta hil behar izatea ere! (Gerra 1939 apirilaren 1ean bukatu zen)

EZ ZIREN DENAK FRONTEAN HIL

Iduritzen zaigu gerra batean denak tiroz, bonbaz eta kanoikadaz hiltzen direla, baina ez da hala. Istripuz ere hiltzen dira eta zer esanik ez gaixotasunez.



▲ Jose Vildarraz Goicoechea



Baltasar Tejedor Antonio	X	12-6-1937
Haroldo Chaves Roberto	X	11-1-1937
Epifanio Dubila Vicente	X	29-2-1936
Emiliano Garcia Masi	X	4-1-1937
Donato Gaudin Vicente	X	18-6-1937
Valeriano J. Modesto Martinez	X	3-6-1937
Francisco Geronimo Mendaza	X	
Raul	X	4-3-1938
Turibio Zabala Pico de La	X	13-7-1938
21498	X	
José Zúñiga Antonio	X	1-13-1938

BARILLAS

Manolo Baigorry Ullate	X	4-1-1937
------------------------	---	----------

BASABURUA MAYOR

consejo de ARRARAS

Leocadio Arriaga Barberia	X	11-6-1937
Ignacio Goñeta Martiarena	X	10-1-1939
Antonio Nuis Aspizua	X	14-1-1937
Pedro Ochandorena Belarra	X	5-9-1938

consejo de BERUETE

Domingo Aguirre Lecia	X	12/12/1937
Juan Pedro Arregui Aldaya	X	6-1-1938

Eusebio Arribas Indacochea	X	19-4-1937
Angel Echarr Garro	X	29-11-1937
Antonio Garro Iriarte	X	18-6-1937
Pio Ochandorena Barberena	X	8-10-1936
Miguel Ochandorena Urriza	X	11-8-1937
Victoriano Zarranz Maribelarena	X	11-7-1938

consejo de GARZARON

Martin Legarra Jaurena	X	14/11/38
------------------------	---	----------

consejo de ECHASO

Juan Añaza Urriza	X	21-1-1939
Francisco Ciganda Madoz	X	3-1-1937
Asensio Iriarte Elizalde	X	25-8-1937

consejo de IGOA

Juan Lizaso Oderiz	X	12-11-1938
--------------------	---	------------

consejo de UDAVE

Miguel Aspizua Telleschea	X	19-1-1937
José Villarras Goicochea	X	20-8-1936

BAZTAN

UNION DE ALMANDOZ

Francisco Barreneche Vergara	X	
------------------------------	---	--

◀ Taula Berregin behar izan dugu. "Caidos por Dios y por España" liburua gaizki baitaude. Non aritu ziren jartzerakoan, den-denak, 19ak boluntario, reketetan edo falangistetan borrokatu zutela baitio. Eta, jakina, ez zen hala izan, 19etatik bost izan ziren boluntarioak.

Liburua egin zutenak ez ziren oso zuzen ibili. Basaburuko oker horiez gain, errepikatuak ere ikusi izan ditugu behin baino gehiagotan. Adibidez, Anueko hiletan bi Gurbindo jarri zituzten, bakarra zenean. Eta zer esan deiturak idazterakoan egindako ortografia hutsez? Hori zaigu gertatzen kanpotarrak sartzen zaizkigunean, errespetu gutxi erakusten dutela gure izenez eta **izanaz**. Kolonialismoa deitzen zaio horri.

Bai, atera zuten liburu arruntak erakusten du gure odolak gutxi balio duela. Beren Sanjurjo eta Mola kriminalak ohoratze orduan, berriz, alimaleko monumentua Iruñean, Conde Rodezno plazan.

Basaburuko 19 hildakoetan ere badira gaixotasunez hildakoak:

Pedro Ochandorena Belarra, Arrarasko **Otseiteko** bordakoa, Armadan harrapatutako gaitzez hil zen 21 urte zituenean.

Angel Echarr Garro, Berueteiko **Barboneko** mutila, Bizkaiko frontean borrokan eta gaixotu egin zen. Frontetik erietxera edo eraman nahi izan zuten, baina berak gogor egin eta eutsi zion egitekoari. Erabat larri zenean Gasteizko Militarren Ospitalera eraman bai, baina berandu. Egun bakar batzuen buruan hil zen. Gizajoak, hala ere azken orduan bere gurasoen bisita izan zuen, Joxe Miqueok -mendi kontratista, autoa zuen bakarra Beruete-, eraman zituen semearen bisitatza. Gasteizko kanposantuan ehortzi zuten.

Juan Lizaso Oderiz, Igoako **Matxinekoa**, 27 urtetan hil zen. Kadizen edo gaizkitu eta etxera etorri nahi, hobeki izanen zen esperantzaz, eta iritsi bai Igoara,

baina nahiko gaizki, eta hil egin zen. Mugitu izan ez balitz, beharbada, sendatuko zen errezeloa utzi zuen.

ZAZPI URTEZ SOLDADU EGON ZIRENAK

1939ko kintakoak, adinera iritsi baino lehen joan ziren soldadu, 18 urte betetzear, 1937an. Hauei "la quinta del bebe" deitzen zieten, eta 7 urtez egon ziren soldadu, 18 urtetan joan eta 25 urtetan etorri. 1939an lizentziatu bai, baina etxean 9 hilabete egon ondoren II. Mundu Gerra hasi zela eta, badaezpada, Francok berriz deitu zituen soldadu. Beraz, 1937an joan eta 1944. urtean etorri behin betiko. Zazpi urteren ordainez dote ederra ekarriko zuten!

Bati eta besteari entzunez, dakizkigunak: Juan Alberro Descarga Igoako **Ettxeberrikoa**, Felipe Oscoz Recondo, Arrarasko **Mendizabalekoa** eta Julian Azpiroz Arano, Arrarasko **Txelaiekoa**, eta beste parrasta bat.



Txurdan

(1) Miguel Alberro, Victoriano Elizalde eta Dimas Segurak 32, 28 eta 37 urte zituzten hurrenez hurren. Horietatik Victoriano soilik joan zen soldadu, 1938ko irailaren 1ean. Dimas Segura garai hartan oraindik Arrarasko Txelaieko bordan bizi zen. Ondoren egin zuen alda Ezkizaburura.

Hiztegia

- Armada:** ejército (Kontuz! Erdaraz armada beste gauza bat da)
- Emaizta:** resultado
- Ariora (alderdi honetakoa hitza):** arabera
- Andana:** taldetxoa, multzotxoa
- Hurrenez hurren:** sucesivamente.
- Alda** (Ultzama, Esteribar...ko hitza) mudanza
- Arranditsua:** ostentoso
- Berregin:** rehacer
- Alimalekoa** (Baztanen eta ibiltzen dena) Izugarritzkoa, lkaragarritzkoa.



Gerra gure alderdian (V)

MUTILATUAK

Gerran bizia galtzea gauza bat zen eta mutilatua gelditzea beste bat. Zauriengatik, fisikoki kaltetuei, edo buruz gaixo gelditzen zirenei Francoren Gobernuak aitortu zien kaltea, eta bizi guzian, hilero saria kobratzea izan zuten. Ofizialki izen luze eta arranditsu hau jarri zieten: "Benemérito Caballero mutilado de guerra por la Patria"

Basaburuan, bost izan ziren mutilatuak gelditu zirenak:

Beruete:

Martin Arraras Aguirre, **Ibarneko**

bordako semea. Gerra hasterako Arrarats familia Garaikoan bizi zen eta, ondoren, Martin bertako nagusia izanen zen.

Higinio Ochotorena Urniza, **Aldaregiko** semea eta ondoren bertako nagusia izanen zena.

Gartzaron:

Esteban Jaunarena Jaunarena, **Joantzinezarreko** semea eta ondoren **Joantzineberrian** familia haziko zuena. Sarjentua izan zen, eta Basaburuko mutilatuendako paperen kontua eginen zuena, hilero-hilero, xuxen, bere bizi guzian.

Orokieta

Venancio Echeverria Arano, Arrarasko semea, Berueten jaioa 1912an. 1936an Orokietako **Zenotxen** etxean zegoen, mutil.

Francisco Mariezcurrena Echarri, Igoakoa, 1908an jaioa. 1935. urtean Orokietan bizi zen.

Udabe

Vicente Iribarren Auza, **Dorreko** semea, ez zen ezkonduko eta etxean segituko zuen zahartutakoan Berriozarra joan artio.

Basaburua

IZENA	1. DEITURA	2. DEITURA	HERRIA	ZEIN ETXETAKOA ZEN	JAITOEGUNA	HERIOTZ EGUNA	"ZENBAT URTETAN HILA"	REENPLAZOA	NON ARIZEN ZERBITZEN
LORENZO	ARRARAS	BARBERIA	Arrarats	Marako Etxetxoa	28/4/11	11/6/37	26	1932	Armada
IGNACIO	GOIZUETA	MARTIARENA	Arrarats	Lardiko Borda	9/3/20	19/1/39	18	1940	Reketea
ANTONIO	NUIN	AZPIROZ	Arrarats	Iriarte	13/11/16	Desagertua, 18/12/1937	22	1937	Armada
PEDRO	OCHANDORENA	BELARRA	Arrarats	Otsaiteko Borda	11/6/18	5/9/38	20	1939	Armada
DOMINGO	AGUIRRE	LECIAGA	Beruete	Apeztegiko Borda	16/4/16	Desagertua 18/12/1937	22	1937	Armada
JUAN PEDRO	ARREGUI	ALDAYA	Beruete	Intsalasko Borda	6/3/17	6/1/38	20	1938	Armada
ESTEBAN	ARRIBILLAGA	INDACOECHEA	Beruete	Erretzea	3/8/09	12/4/37	27	1931	Reketea
ANGEL	ECHARRI	GARRO	Beruete	Barbonea	27/5/13	29/11/37	24	1934	Armada
ANTONIO	GARRO	IRIARTE	Beruete	Mikeltoneko Borda	17/1/15	18/8/37	22	1936	Armada
PIO	OCHOTORENA	BARBERENA	Beruete	Gaztondoa	11/7/13	8/10/36	23	1934	Reketea
MIGUEL	OCHOTORENA	URNIZA	Beruete	Aldaregia	20/5/13	11/3/37	23	1935	Armada
VICTORIANO	ZARRANZ	MARIÑELARENA	Beruete	Apeztegia	2/11/15	21/7/38	22	1936	Reketea
MARTIN	LEGARRA	JAUNARENA	Gartzaron	Martxonea	28/10/16	Desagertua 18/12/1937	22	1937	Armada
JUAN	AUZA	URRIZA	Itsaso	Kaxenea (Gartzenea)	30/1/11	21/1/39	27	1932	Armada
FRANCISCO	CIGANDA	MADOZ	Itsaso	Tabernazarrea	9/1/13	3/1/37	26	1934	Armada
ASCENSIO	IRIARTE	ELIZALDE	Itsaso	Antxotonea	27/11/17	26/8/37	19	1938	Armada
JUAN	LIZASO	ODERIZ	Igoa	Matxinea	5/12/11	22/11/38	26	1932	Armada
MIGUEL	AZPIROZ	TELLECHEA	Udabe	Kiliminzarrea	17/12/06	19/3/37	30	1927	Falanjea
JOSE	VILDARRAZ	GOICOECHEA	Udabe	Dorreko Maistarretxea	13/4/13	20/8/36	22	1934	Armada



Maria Ascension Astitz Urritza

Maiatzaren 5ean ehun urte bete zituen

Maiatzaren 5ean ehun urte bete zituen.

1921ko Igokunde edo Asentsio egunean jaio zen bere izenak ongi adierazten duen bezala, jendeak Maixtentxon deitzen badu ere. Etxalekuko Marimigeleneko Joxepa Mikela Urritza eta Cayo Astitzen bigarren haurra. Ordurako bai baitzuten seme bat, Joxanjel, Apezetxean sortua, eta Marimigelenean bizi zena guraso, amañi, "tia" Felisa eta osaba apezarekin batean. Gero beste bost anaia etorriko ziren; alaba bakarra izan zen, bada.

Eritasun larri bat izan omen zuen ttikitan eta medikuak etxekoei ez zela luze biziko esan zien. Eta 100 urtera iritsi alajaina!

Eskolara joateko adina izan zuenerako Etxalekuko eskola berria egin zegoen eta hartan eskolatu zen. Eskola zaharrean ez zen batere ibili, Maixtentxonen anaia Joxanjel izan zen eskola horretan aritu zen azkeneko belaunaldikoa.

Etxalekun bizitu da 100 urtez, herri honetan gehien bizitu den pertsona dela esan dezakegu. Adin horretara ailatxi denik izanik ere, 100 urteak hemen egin duenik ez baita izan.

Marimigelenetik, -gazterik ezkondu zen-, eskolara aldatu zen bizitzera Pedro Aleman Imozko sekretarioarekin. Maisuaren etxean Pedro eta Maixtentxonen bost seme alaba jaio ziren. Bertan denda jarri zuen, denetarik saltzen zen horietakoa. Bosgarren haurrak

8 bat egun zituenean, Txurdanera joan zen familia guztia bizitzera, plazara, bera jaio zen urte berean egin zuten plazara. Han beste lau seme-alaba izan zituen.

Txurdanean ere dendari izan zen, urteetan. Imozko udaleko idazkaritza ere Txurdanean jarri zuten, bigarren pisuan, eta Maixtentxonek dendara zetorren jendea atenditzeaz landa, sekretarioarengana zetorren jendeari ere harrera egin behar izaten zien, maiz. Garai batean, autorik ez eta, bizikletaz edo oinez etortzen zen jendea, askotan hotz handiarekin eta euripean. Bai, lan handia zuen, bada. Beharrik etortzen zitzaion "tia" laguntzera.

Lana bazuen nahi adina, halere, bere denbora hartzen zuen, ez dakit nola, jertse ederrak egiteko seme-alabendako. Afizioari, beharrari eta trebeziari esker; eta aurki ere, puntu egitea lasaigarri zuelako.

Arantzarik gabeko bizirik ez baita, bizipen gogorrek ere bizi izan ditu, jakina. Anaia bat gazterik galdu zuen, eta gero, 1982an, seme bat hil zitzaion 24 urtetan, eta handik urte batzuetara, biloba bat. Denak beti gogoan!

Bere senarra Pedrokekin eta 9 seme-alaba eta bilobekin urte ederrak izan ditu. Bere anaiak eta gainerako familia ere inguruan beti. Azken urteetan bigarren alabarekin, Ixabelekin, bizi da; eguraldi onarekin plazan ikusiko dugu maiz, eguzkitan.

Besarkada bat bihotzez, ama. Urte askoz.

Zure seme-alabek



▲ Ehun urte betetze egunean, herritarrez inguratua.



Kin Potowski (eta III)

AEBetako Eskola ereduak

-Eskola faktore inportantea da hizkuntza bat ikasteko, baina ez bakarra. Ingelese ari den gizarte batean, gaztelera Eskola oso-oso inportanteak dira eta Ameriketara, irakaskuntzari dagokionez, badira hiru eredu:

a) Ingelesa jakin gabe datorren haurra ez da gela normal batean sartzen. Horiendako badute hasieran, ingelesa ikas dezaten "bizkortze-eskola".

b) Bigarrena, "bi-eledun" eskola deituko genukeena (%75 ingelesez eta %25 espainolez) Honek ez omen du elebidunik sortzen, bere helburua ez baita hori. Gezurreko "bi-eleduna" da.

c) Espainolez erabat, murgiltze eskola, ia den-dena espainolez eta gutxika-gutxika ingeles gehiago sartuz.

Potowskik lehen biak arbuizaten ditu, gaztelarari eusteko balio ez dutelako.

Ikasketak hoberena.

egiteko

eredu

Gero beste kontu bat ere badakar New Yorkeko hizkuntzalari eta pedagogoak eta hona bere galdera eta erantzuna: **eta nork uste duzue ikasten duela hobekien ingelesez idazten? Ba, espainolez ikasi duenak.** Eta horrela bukatzen du: **"Nahi duzu zure seme-alabek ingelesez irakurtzen eta idazten ongi jakitea? Ba, igorri gaztelera Eskola".** Eta honen zergatia, gehiagoko azalpenik gabe: **"askotan erantzun errazena ez dira zuzenak izaten"**

Bai, hori guk ere bagenekien, gauza hauetaz kezkatutik gaudenok behintzat.

Eta nik diot, D Ereduko haurrek erdaraz irakurtzen eta idazten ere hobeki ikasten badute, jendeak zergatik ez ditu D eredura bidaltzen? Erantzuna, "erraza" bilatzen dutelako. Erraza bai, baina "okerra" dena.

Elebakartasuna sendatu.

Kin-ek bere hitzaldian **"curar el monolingüismo"** aipatzen du, amerikarren elebakartasuna kritikatu. Amerikar hizkuntza bakardunek, ingelesa soilik dakitenek dute sendatu beharra.

Nafarroan ere elebakartasuna da sendatu behar den gaitza. Erdaraz soilik dakiten horiek ikasi beharko lukete euskaraz, gehiago oraindik Nafarroako **berezko** hizkuntza izanik.

Eta larriagoa dena, zergatik jartzen du hainbat oztipo Nafarroako Administrazioak D eredua heda dadin? Zergatik pertsegitzen gaitu? Zer du oraindik euskaldun segitzen dugunon kontra?

Galdera hauei zerorrek emanen diezu erantzuna. Nafarroako lur "emankorrean", zoritxarrez, ozpin usaina besterik ez dut sumatzen. Eta gu ardo frexko bila! Ederki gaudek!!!!



Txurdan

Hiztegia

Irakaskuntza: Enseñanza

Bi-eleduna: bilingüe

Elebiduna: bilingüe. Bi hizkuntza dakiena.

Arbuiatu: desestimar, rechazar.

Hizkuntzalaritza: Hizkuntza aztertzen duen jakintza

Hizkuntzalaria: Hizkuntzetan ikasia, jantzia.

Elebakartasuna= monolingüismo: hizkuntza bakarra jakitearen nolaketasuna.

Berezkoa: bertakoa, originala.



Kin Potowski, New Yorkeko hizkuntzalari. ▲



Ombuaren itzala

Pello Mari Otañoren historia pantaila handira eramateko auzolana

Patxi Bisquert aktore eta zinemagile zizurkildarrak bere herrikide Pello Mari Otaño bertsolari eta poetaren bizitza zinemara eraman nahi du, eta auzolan erraldoia abiatu dute horretarako. 30.000 sarrera aurrez saldu nahi dituzte pelikula finantzatzeko; informazio eta xehetasun guztiak pellomariotañoauzolana.eus webgunean daude. Maiatzaren 7an Larraintzarren izan zen Bisquert proiektua aurkeztzen, eta elkarriketa egiteko aprobetxatu genuen guk aukera.

'Ombua' zer den ez dakigu erredakzio honetan...

Argentinako Panpako arbol oso ezaguna da Ombua. Beno, arbola baino zuhaixka dela esan beharko dugu, baina arbolak bezain handiak egiten dira. Otañoren etxola ondoan horrelako arbola bat zegoen, eta hark lagundu zion bertsolariari herrimina bideratzen. Oso bertso eder eta hunkigarriak idatzi zizkion Otañok onbuari.

“Otañoren garaia ezagutzeak gaur egungo gizartea ulertzeko ere balio du”



Patxi Bisquert proiektuaren aurkezpena egiten

Zergatik kontatu nahi duzu Pello Mari Otañoren historia?

Oso pertsonaia interesgarria eta berezia izan zelako. Bere garaian bertsolari bakan horietako bat izan zen: liberala karlisten munduan, beste era bateko bertsolaria. Gainera, garrantzitsua iruditzen zait bere garaia jorratzea, berezia izan baitzen aro hura gure gizartearentzat. Garai txarrak izan ziren, foruak desagertuak ziren eta horrek izugarrizko kalteak ekarri zituen gurera. Guzti hori jorratu nahi dugu, bi hamarkada horiek oso interesgarriak direlako eta Euskal Herriko gaurko gizartea ulertzeko ere balio digulako.

Filma aurrera ateratzeko auzolanaren bidea aukeratu duzue. Zergatik?

Beste ate guztiak itxita topatu ditugulako aukeratu dugu bide hau. Gaurko telebista plataforma handiei ez zaie gehiegi interesatzen gai hau, beste errelato batzuk bilatzen dituzte. Oztopo horiek ikusita, pentsatu nuen: “Tira, Otañok izugarrizko itzala zuen bere garaian Euskal Herrian eta gaur ere maitatua eta miretsia da”. Baina itzal hori batez ere euskaigintzan, bertsogintzan eta adituen eskuetan gelditzen da. Nik nahi nuen bere memoria eskoletara, ikasgeletara eta herrietara eraman. Horrelako lanak auzolanean bultzatzen baditugu badakigu toki gehiagotara iritsiko direla.



Ombuaren itzala

Nola funtzionatuko du auzolanak eta nola egin daitezke ekarpenak?

Filma ekoizteko bi diru iturri jarri ditugu abian: alde batetik, 30.000 zine sarrera aurrez salduz, bakoitza 10 eurotan. Salmenta horiek guraso-elkarte, udal eta bestelako elkarten bidez bideratzen ari gara. Bigarren iturria mezenasgo kulturalarena da. Nafarroan onartu digute honezkero, eta orain EAEn gestio bera egiten ari gara foru-ogasun bakoitzarekin.

Bestetik, herriz herri aurkezpenak egiten ari gara, eta webgune bat ere jarri dugu martxan: peiomariotañoauzolana.eus. Hor agertzen da informazio guztia eta baita sarrerak salmentan dauden tokiak ere. Gainera, auzolan honekin Otañoren historia kontatzeko liburu eder bat egiteko asmoa ere badugu. Bitxikeria guztiak azalduko dira hor.



Mikel Jaunarena Eugi, 'Zepelo'

30 urte aritu ondoren, kirol batzordeko bere ibilbidea amaitu du

la 30 urte eman ditu Mikel Jaunarena Eugik kirol batzordean. Zepelo ezizenez ezagutuko dute askok Jaunarena, eta jakinen dute Gartzarongoa dela, Elizondo etxekoa. 60 urte bete berri ditu eta, beraz, bizitza erdia eman du Basaburuko eta Imozko kirol jarduerak bultzatzen. Lanean ez da batzordean soilik aritzen, eta urtea luzeegi egiten hasi zaionez, uztea erabaki du orain.

Nola eta zergatik hasi zinen kirol batzordean?

Jende gazte franko ibiltzen ginen ni hasi nintzenean. Basaburuko Eguna antolatzen hasi ginen eta gero udalean sartu ginen, Benito [Alberro] alkate zela. Orduan osatu genuen batzordea, kultur batzordearekin batera. Geroztik, lau urte kenduta (beste alderdi batek irabazi baitzituen udal hauteskundeak), gu ibili gara kirol batzordean. Bospasei lagun aritu gara, Basaburuko eta Imozko zinegotziak (Julen Beunza eta Xabier Iturriotz 'Zapa') eta laguntzaileak: Gartzarongo Santi duatloia prestatzen eta Arrarasko Luisito, BTT-arekin.

Zein ekimen sortu dira hiru hamarkada hauetan?

Basaburuko eguna antolatzen hasi ginenetik hainbat eta hainbat txapelketa egin ditugu, pala eta Frontenis txapelketa, adibidez. Bestetik, herri kiroletakoak ere bai; Javier Beunza (Julenen aita) eta Javier Auza 'Azpikotxe' ibili ziren horretan, eta bost edo sei urtez jarraian egin ziren Basaburuko herrietan. Gero, kirol gehiago batu zaizkio: duatloia eta BTT lasterketa, adibidez. Horiek 11-12 bat urte izanen dituzte. Segar txapelketa ekartzen ere hasi ginen duela 12 bat urte. Hori urte bat Basaburuan eta hurrengoan Imotzen egiten dugu; pasa zen urtean ezin izan genuen antolatu.

Herritarren laguntza beharrezkoa izanen duzue, ezta?

Bai, askotan bakarrik sentitzen zara, eta azkenean gogorra eta luzea egiten da. Eguneroko lana da, eta horretaz aparte bakoitzak gure soldatapeko lana dugu. Uste dut, gainera, kirol koordinatzaile batek eginen ez lukeen lana egiten dugula: kanpotik etorriko litzateke norbait, diru bikoitza gastatuko luke eta ez lituzke guk antolatutako gauzak eginen. Baina bai, jende gehiagoren inplikazioa behar dugu, batzordean herritar berriak sartzea, gazteagoak. Ea hutsunea ikusten duten eta animatzen diren. Zeren egon, jendea badago.

Antolatu dituzuen gauzen artean, zein da harrotasun handiena ematen dizuna?

Denak dira garrantzitsuak, jendea biltzea baita helburua, inguruko jendeak kirola ikustea eta egitea. Baina gustukoena dudana... pilota, noski! (barreak).

2019an zilarrezko domina eman zizun Nafarroako Gobernuak, zer sentitu zenuen?

Emozioa, batez ere, lagunengatik. Miguel eta Jesus egon dira urteak nirekin, beti ondoan laguntzen, eta haiengatik kristoren poza sentituen. Domina jasotzen duzun egunean, dena den, kurioa da nolako aldea dagoen batzuen eta besteen artean. Adibidez, urteetan epaile izandakoari eman zioten zilarrezko domina, baina hark urtero-urtero partida guztiak kobratu ditu. Niretzako, dena den, omenaldirik onena

Omenaldirik politena jende berria batzordean sartzea izanen litzateke, jarraipena izatea



la 30 urtez aritu da Kirol Batzordean lanean Mikel Jaunarena 'Zepelo' ▲



ekoaholkuak

Zer jan, hura izan

Ziurrenik behin baino gehiagotan entzun izanen duzu "Zer jan, hura izan". Gaurkoan bada, esamolde hau izango da abiapuntua. Zer eragin du jaten dugunak guregan eta planetarengan?

Geroz eta janari osasuntsuagoak (freskoak, garaikoak, gertukoak, elikadura piramidea errespetatzen dutenak,...) aukeratzen baditugu, gure osasuna hobea izango da, baita gure ingurukoa ere. Azken bolanda hasiak gara entzuten gure elikadurak, bereziki animalia jatorrikoak, klima-alaketarengan duen eragina. Zergatik baina?

Hainbat faktore aztertu behar badira ere, laburbilduz, hauek lirateke arrazoi nagusiak: urrutiko elikagaien garraioa, abeltzantza industrierako bazka ekoizteko baso-soiltzeak, nekazaritza industrierako ongarri eta pestiziden erabilerak ura, lurra

zein atmosferan duen eragina eta abeltzantza zein nekazaritza industrierak isuritako negutegi efektuko gasak.

Eta orduan, zer jan? Hona hemen hainbat aholku zure otorduak pentsatu eta antolatzeko:



▲ Barazkiak

- Gertuko elikagai freskoak, garaikoak eta ekologikoak izan daitezela zure otorduetako osagai nagusiak.

- Murritzatu animalia jatorriko elikagaien kontsumoa. Horretarako lagungarri diren hainbat gomendio: otordu bakoitzean plater batean baino gehiago ez dadila animalia jatorriko elikagairik egon, zehaztu asteko ze egun izango den/diren animalia jatorriko elikagairik gabeak.

- Kontsumitzen dituzun animalia jatorriko elikagaiak bertakoak eta aske dauden abereena izan dadila.

Dagoeneko horrela egiten duzuenontzat, hona hemen erronka: mahai inguruan lagunekin egiten dituzuen ospakizunetara ere eramanez etxean aintzat hartzen dituzuen irizpideak. On egin eta gogoratu, "zer jan, hura izan".

Zorionak Zorionak !



Zorionak Hare!



Literaturaren Hola!

Baina festan ez da bakarrik egongo, 2021a oso urte literarioa baita eta beste zenbait dinosauroren efemerideak ere beteko baitira

"Esnatu zenean, dinosauroa hantxe zegoen oraindik". Hau da dudarik gabe literatura unibertsalaren ipuinik laburrenetako eta ezagunenetako bat. Augusto Monterroso da egilea eta aurtan Guatemalako idazlearen jaiotzaren

lehenengo mendeurrena ospatzen da. Esate baterako, Dostoievskiren, Baudelairen, Flauberten, Patricia Highsmithen edo Carmen Laforeten jaiotzak eta Danteren heriotza (edo, zergatik ez, Joseba Sarrionandiaren Euskal Herrira itzulera).

Hau guztia komentatuko dugu hemen; liburutegian egile bakoitzaren zein liburu ditugun ere kontatuko dizuegu; eta aipatuko ditugu haien esaldi edo bitxikikeria batzuk (gaur, atal hau literaturaren Hola! aldizkaria izango da nolabait).

Augusto Monterroso

Guatemalan jaioa, umorearen eta laburtasunaren maisu txiki honek (bere altuera fisikoari dagokionez; bere ipuinak, luzeraz motzak izanagatik ere, erraldoiak dira gehienak) galdetu zion behin bere lagun bati zer iruditzen zitzaion bere dinosauroaren ipuina (gogoratu, lerro batean idatzia) eta besteak erantzun zion: "Gehien

gustatu zaidanetako bat da, baina oraindik erdibidean nago". Esan daiteke Monterrosoren laguna ez zela irakurle peto-petoa. Agian, pasadizo hark inspiratu zion Monterrosori beste ipuin ultralabur bat: "Gaur Balzac bat sentitzen naiz. Bukatzen ari naiz lerro hau" (ipuinak *Emankortasun* du izenburua).



Augusto Monterroso ▲

Carmen Laforet

Nadal sariaren lehengo irabazlea izan zen, oso gazte zela (22 urte baino ez zeuzkan *Nada* eleberria idatzi zuenean). Liburuak aurkezteko epea bukatzen zen azken egunean heldu zen Laforeten eleberria (eta epaimahaiak irabazlea ia erabakia zeukanean), baina *Nada* aparteko eleberria izan zen, eztabaidarik gabe, eta saritu egin behar izan zuten. "Maisulan bat idazteko

zoritxarra izan duzu" esan zion, hala ere, Ramon J. Sender idazleak. Eta horrela izan zen, Carmen Laforetek inoiz ez zuen lortu *Nada* gainditzea, eta bizitza literarioa utzi behar izan zuen. "Nire bizitzako edozein pozek zerbait desatsegina konpentsatu behar zuela pentsatu nuen. Agian hau zorigaitzoko legea zen", esaten zuen Andreak, *Nadaren* protagonistak, presagio bezala.



Carmen Laforet ▲



Charles Baudelaire

Les fleurs du Mal (liburutegian dago gaztelerazko argitalpena) olerki liburuaren egile ospetsuaren bizitza bohemioa eta gehiegikeriaz beterikoa izan zen. Absenta edalea, hatxis erretzailea (poema bat idatzi zion), prostibuloen ohiko bisitaria (sifiliz jota hil zen), gaurko rock-izar baten bizitza izan zuen. Eta haiena bezala, bere bizitza ere ekaitz ilunbetsua izan zen. Hau da, hain zuzen, Joakin Balentziak idatzi zuen bere poema baten bertzioa:

ETSAIA

Ekaitz ilunbetsu besterik ez zen nire gaztaroa,

eguzki distiratsuek hemen eta han zeharkatua;

hainbeste suntsiketa trunboiak eta euriak egiten dute

nor nire lorategian hain fruitu gorri gutxi geratzen bait dira.

Hona hemen ideien udazkena ukitu dudala,

eta para eta arrasteluak erabiltzea premiazkoa da

uholderiko lurak berriz biltzeko

urak hilobiak bezain haundiak zuloak aitzurtzen dituen lekuan.

Eta nork daki amesten ditudan lore berriek

lur ikusi honetan harearen antzera aurkituko dutenez

beren kemena eginen duen janari mistikoa?

Oinaze hori, oinaze! Denborak bizia jaten du,

bihotza marraskatzen digun Etsai iluna

hazten eta indartzen da guk galduriko odolaren bidez.



▲ Charles Baudelaire

Joseba Sarrionandia


Baina, efemeride hauez guztiez aparte, 2021 izango da Joseba Sarrionandia gurera itzuli zen urtea, jakina. Dakizuenez, Sarrik ihes egin zuen Martuteneko kartzelatik Imanol kantautorearen bafle batean ezkutatuta, eta urte luzeetan leku sekretu batetik (Kubatik, azken urteotan jakin genuenez) bidali

zituen bere liburuak Euskal Herrian kaleratzeko (hauek dira liburutegian daudenak: *Narrazioak*, *Bizitza ez al da oso arriskutsua*, *Airea ez da debalde*, *Akordatzan*, *Lagun izoztua*, *Ez naiz hemengoa*, *Ifar aldeko orduak*, *Miopeak*, *bizikletak eta beste langabetu batzuk*, *Han izanik hona naiz*, *Idazlea zeu*

zara, *irakurtzen duzulako Marinela zaharraren baladak*, *Izkiriaturuk aurkitu ditudan ene poemak*, *Hnuy ella nyha majah yahoo*, *Hau da ene hondasun guzia*, *Ez gara geure baitakoak eta Manuel Bandera antologia*). Denok dakigu nola izan zen Sarriren ihesa, besteak beste Kortaturen abestiari esker (denok dantzatu dugu "Sarri, sarri", baita Patxi Lopez EAEko lehendakari ohiak ere, elkarrizketa batean esan zuenez); baina hain ezaguna ez dena da Kortatu eta Barricada taldeek beste kontzertu bat eskaini zutela Martutenen, eta Fermin Muguruzak erdi txantxetan esan zuela preso pare batek ihes egin zezaketela bere ekipoa gordeta, jakin barik ihesa martxan zegoela.



Patxi Irurzun
Ultzamako liburuazaina



▲ Joseba Sarrionandia, Euskal Herrian

2021eko apirila

2021eko apirilean gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

Sortzeak:

ODIETA Ostitz

Sara Ibañez Lusarreta, apirilaren 1ean sortua. Gurasoak: Diego eta Celia, Ostizko **Gartxotenekoak**.

“ Zorionak gurasoei ”



Daniel eta Pablo, arreba ttikiaz, ongi pozik! ▲

Ezkontzak:

Apirilean, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

Heriotzak:

ULTZAMA Arraitz

Felix Baraibar Askobereta, Kondeneko nagusia; apirilaren 1ean zendu zen, 80 urtetan.

“ Zure maitasuna, gelditzen zaiguna. ”



▲ Felix Baraibar Askobereta

Oharrak:

ALBISTEETAN ZUZENKETA BAT

206. Pulunpeko albisteetan Olagueko gazteek Pedro Etxarriren omenez lizar bat landatu zutela jarri genuen, baina gaizki jarri genuen ermitaren izena: Ezkatiko San Nikolas ermita zela jarri genuen, baina Olaguetik jakinarazi digute argazkiko ermita Bordazargaingo Santa Maria ermita dela. Barkatu akatsa.

AZKENEKO PULUNPEKO AZALEKO FOTOGRAFIA (OROKIETA)

Argazkiko paisaia Antsoneko bordaldeko ingurua dela esan digute, gaur egun sasi eta landareek hartzen dutena. Argazkiko pertsonen dagokionez, berriz, hauexek dira: Ezkerrean, zutik, Martin Lazkano Balda, Orokietan etxe berria egin zuena eta Jesusa Sasturain Gorriti Jauntsarasko Txokolaterorenarekin ezkondua, tratantea, lodi eta gizen ageri zaigu, atorra hutsean, bastoia zintzilik eskuetan.

Behor gainean: Pedro Maria Bitoria Mutuberría, trajeduna. Tratantea zen eta Olako Juanbizontenean (Kerejetarenean) bizi zena. 52 urtetan hil zen, utzirik alarguna eta bi ume.

Hirugarrena: zutik, bastoiarekin, gizon segaila (seidala) atorra txuria, txalekoarekin. Hau Olakoa izanen zen baina ez dakigu nor den.

Eta azkena, mando eder bikainaren gainean, Diputazioko mendi edo karreteretako funtzionarioa. Mandoak ere Orokietakoa behar du izan.

Noiz: Aise gerra ondoren behar du izan, Lazkano 1935ean ezkondu baitzen, eta hemen ez da oso gazte ageri.



▲ Orokiet. Bideetako Zuzendaritzaren bisita Olako auzora. 1951.09.05. (Nafarroako Artxiboa)

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2020-2021 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala		
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Musika	Soinugela
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Lur eta Murmur / Paperezko itsasoa	
14:30-15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Bertsoinka	Beranduegi (Argia podcast)
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea		
18-19	Hiru Kortxea	Kultur kuboa	Gramofono	Piperpolis	Kolpez kolpe		
19-20		Musika	Musika	Musika			
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Bidasoa Attack	Berria FM/ Dunbala
21-22	Erro ta Berri	Zuria Beltzez	Mestibull	Pentsatu ez sinistu / Ithaka ukatuz	Haus of beats	Musika	Booktegi
22-07	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika

- ESAN ERRAN IRRATIA:** Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika
- ARROSA SAREKO IRRATIAK:** Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia
- EUSKADI IRRATIA**
- EUSKALERRIA IRRATIA:** Metropoli Forala
- BESTEAK....:** Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM